



DANI BLANCO

Angel Erro

◆ IDAZLEA

Nola atera armairutik

DORRE BIKIAK erori zirenean zer egiten ari zinen galdetzen dizun modu berean, jende askok galdetu izan dit noiz atera nintzen armairutik. Erantzun zuzenak “oraindik ari naiz” beharko luke. Azalpen gehiegi eskatu ahal duenez, errazena galdera beste modu batera berrinterpretatzea da: noiz esan zenion lehendabizikoz norbaiti gay zinela. Norbaiti edo norbait askori. Jendeak bilera moduko bat, edo bilera sail bat, irudikatu ohi duelako. *Mini tourné* bat, ezkontza baterako gonbidapenak senide eta lagunei banatzeko antolatzen direnen gisakoa, hierarkia jakin batean egina, gurasoekin ez bada, lagun gertukoekin hasita, gurasoak atzeragi utzi gabe –horiek baitira emanaldiaren ikusgarri nagusia, hunkigarriena, zeinean artistak arrisku gehiena hartzen baitu bere gain, galtzeko eta irabazteko handienarekin–, eta lagun urrutiagoekin bukatuta, zerrendan inor jakingabea utzi gabe.

Baina ez da hala izaten. Izan ere, zerrenda ez da inoiz bukatzen. Ezagutza berri bakoitzarekin dilema berpiztuko da, ezer esan (bigarren esaldirako, “nire senargaia” edo, soltero egonez gero, inoiz halakorik ukan gabe ere, “nire senargai ohia” bat boteaz) edo nolabait adierazi ezean (janzkeran, keinukeran eta abar), ustekizunak heterosexualitatearen alde egiten baitu.


Ni maiz errudun sentitu izan naiz nire armairu ateratze herrena dela kausa. Nahi izanda ere, lotsaren lotsaz luze geroratu ondoren, nire lehen aitortzak ez ziren espero bezalakoak izan –mundu guztiak bazekien edo bazekielako plantak egiten saiatzen zen– eta puntu jakin batean galdu nuen jendeari esaten jarraitzeko interesa. Esan gabe gelditutako gehienek ere jakinen zutelakoan.

Hauetako hirurekin, institutu garaiko hiru ikaskiderek, harremana berrartu dut azkenaldian, pixka bat neure gogoaren kontra bada ere: denbora luzea elkar ikusi eta elkarren bizitzaz jakin gabe ere, temetzen gara lehengo solasgai berberak, orain urte asko utzitako puntu berean, berrartzen, denbora igaro izan ez balitz bezala, elkarri eboluzionatzeko eskubidea ukatu nahi bagenio bezala. Horrelako dinamika sortu da gure artean, hilean behin egiten hasi garen hitzorduetan. Ez dakit nork eta nola abiatuko zuen baina geldiezina da. Beste hirurek ez dute deseroso ematen, orduko liburu, bideojoko, film eta afizio berberetz edo antzekoetz mintzo, mendrenko intimitateri leku egin gabe. Jarrera iruzurrez nerabe horretan, inork ez du interesik erakusten besteen bizitza pertsonalengatik. Ezkonduta daude beste hiru mutilak baina ez da emazteen konturik inoiz

aipatzen. Agenda aitzaikiarik jarrita ere, beti moldatzen dira topaketak nire denbora tarteen arabera antolatzen. Azken orduan ezin naizela joan adierazten badiet, prest daude ez elkartu eta beste egun batean biltzeko laurok. Hiruetako batek ere ez daki euskaraz, ezagutu nituenean nik bezala, baina jakinen balute ere eta idazki hau irakurri, ezikusiarrena eginen ziotela susmatzen dut.

Azken egunean bururatu zitzaidan zer egin. Txoke plan bat. Armairutik aterako nintzaie. Banan bana egin dut: bati tabernan besteen zain egon bitartean, bigarrenari barran eskatu bitartean, hirugarrenari kanpoan erre bitartean. Laurok bokatekin eseri eta lehengo aldiz dibertitu naiz ikusi ez ditudan zientzia

fikziozko filmez mintzo. Ohi baino goizago agurtu dugu elkar. ■



Antton Olariaga